

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Onartu dute
udal aurrekontua /08

BÉRRITZE LANAK
Ibarraundiko lanak
bukatuta /09

LEINTZ GATZAGA
Sahararako
janari bilketa /10

XAKEAN JOKATZEKO DENBORALDIA

ARLUTZ XAKE-TALDEAK HASI DU DENBORALDIA EUSKAL LIGAN

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 22
ITURRALDE. Araba Ibilbidea 943 79 27 22

DOMEKA, 23
ITURRALDE. Araba Ibilbidea 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

| | |
|---------------------------------|--------------|
| OROKORRAK | |
| Almen | 943 71 49 07 |
| ARETXAGAZETA | 943 79 86 21 |
| Faxa | 943 77 18 54 |
| Basotxo | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 18 62 |
| Hezibide elkarte | 934 79 31 32 |
| Industrialdea | 943 79 62 80 |
| Institutua | 943 79 79 00 |
| Kirol etxea | 943 71 26 28 |
| Kultura etxea | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri BHI | 943 79 57 40 |
| KZGunea | 943 79 94 44 |
| Liburutegia | 943 71 18 62 |
| Loramendi EE | 943 77 09 70 |
| Ludoteka | 943 79 05 81 |
| Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| Murruxiko ME | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| Osasun etxea | 943 71 19 59 |
| Otalora | 943 71 24 06 |
| Parrokia (bulegoa) | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur Eskola | 943 77 03 77 |
| Postetxea | 943 79 28 31 |
| Santa Rita Ikastetxea | 943 79 17 00 |
| Taxi geltokia | 943 77 12 64 |
| Udal Bulegoak | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa | 943 71 18 63 |
| Urats Gain | 943 79 99 11 |

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

| | |
|---------------------------------|--------------|
| LARRIALDIAK | |
| SOS Deiak | 112 |
| Eskualde Ospitalea | 943 03 53 00 |
| Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Suhiltzaileak (Oñati) | 943 78 28 00 |

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

SAN KANUTO EGUNA
Bihar San Kanuto eguna ospatuko dute. Bolo txapelketa eta herri bazkaria, musika eta jokoak izango dira eguerdian. Arratsaldean, kalejira Elektrotuna taldearekin, eta gauean Karlo y Los 3 Del Patibulo eta Akulu taldeen kontzertua.

PLASTIKO BILKETA
Baserrietan sortutako plastikoa batuko dituzte martitzen arratsaldean, urtarrilak 25. Lausittan, Izurietara doan bidegurutzetik 100 metrora; Arkarazoko bide parean eta Oroko bidegurutzean jasoko dituzte.

BILERA BASABEAZPIN
Matrikulazio kanpainaren inguruan informazioa emateko bilera egingo dute Basabeazpi ikastolan eguaztenean, hilak 26, 18:00etan.

AIZKORRIKO PARKEAREN GAI NEKO HITZALDIA
Aizkorriko parkeari buruz egingo du berba Bioaniztasunaren zuzendari Josu Erkiagak hilaren 26an, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

IGERIKETA IKASTAROAK
Kirol Zerbitzuak igeriketa ikastaroak antolatu ditu. 3 urtetik gorako umeendako eta nagusiendako izango dira. Izena emateko kirol etxera deitu: 943 71 26 28.

LORAMENDIRENAGENDA

HIKA IKASTEKO IKASTAROA
Martitzenean, hilak 25, hasi eta otsailaren 15a bitartean hika berba egiten ikasteko ikastaroa emango du Joseba Urkiak. Martitzenean izango dira eskolak 19:00etatik 20:30era.

KONDAIREN KONTAKETA
Eskualdeko kondairak kontatuko ditu Imanol Biain oñatiarrak eguenean, hilak 27, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Kadeteen eta gazteen azken ziklo-kros proba herrian

Herrian antolatutako azken ziklo-kros proba orain dela 10 urteko urtarrilaren 15ean izan zen, eta kadeteek eta gazteek hartu zuten parte. Kadeteen artean Andoni Aranaga estatuko txapelduna gailendu zen, eta gazteen artean Oier Egaña; bigarren Mikel Roland aretxabaletarra geratu zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kinkillero"

Kinkila saltzen etxex edo azoketan dabilena.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Han eta hemengo ipuinak I



MAKILAKIXKI

HAN ETA HEMENGO IPUINAK

Goiatz multimedia
DVD bideoa,
30 minutu

DVD bilduma honetan txotxongiloen bitartez ipuin tradizionalak antzesten dira. 30 minutu irauten du ipuin bakoitzak, eta 4 urtetik gorako umeei gomendatuta daude batzuk eta sei urtetik gorakoei besteak. Guztira 13 titulu daukagu: Artzaina eta Mari, Barbantxo, Botadun katua, Edurne Zuri eta zazpi ipotxak, Enperadorearen soineko berria...

DVD bakoitzak bere gida didaktikoa dakar. Buelatzeko epea astebete da, eta hiru har daitezke bakoitzean.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...


Zorion agurrak,
SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com



ATREBENTZIAEZPADA/ Azken egunotan igerri dozu sats usaiñe egon dala herri inguruen?



CONCHI GONZALEZ
Langillie




MATIAS URIBESALGO
Jubilaue




MAIDER AIZKORBE
Langillie



ELIAS GARCIA
Langillie



LOLA NOGUEIRA
Langillie



KIKO JIMENEZ
Langillie

Bai, zela ez! Normala dala uste dot, zelaixek ongarrittu biher dittuze baserri-tarrek, eta satsa botata egiten daue. Hori bai, baserri inguruetan izugarritzko usaiñe jasan biherko daue.

Bai, horixe, eta hego-haixie dabillenien oso molestue da. Bidegorrittik dabizenek izugarritzko usaiñek hartu biher izen dittue. Ahal izenez gero baserri-tarrek ebitau egin biherko leukie.


Egia esateko ez, etxien egon naz eta. Satsak oso usain txarra sortzen dau eta herri-tarrok hori jasaten egon biher izetie ez jat ondo pen-tsetan. Beste irtenbideren bat egongo da, ez?

Bai, oso usain txarra egon da. Beste irtenbiderik ez dauenez jasan egin biher, baiñe kontuen hartzekue dala uste dot, izen be, oin-guen usain haundixe eue-la igerri neuen.

Ez, oingo egunetan ez dot ezer igerri. Badakit satsa botaten dauela baserri-tarrek zelaixetan eta horrek usain txarra sortzen daue-la, baiñe oingo aldixen ez dot ezer igerri.

Ez, egixe esateko ez dot ezer igerri. Dana dala, herritarrrei asko molestetan badutzo usaiñek, zoezer egin biherko litzateke, irtenbideren bat topau, eta ez usaiñek jasaten egon.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LANAK BUKATU BARIK Aspaldi hasi zituzten Aralar-Zaraia kaleetako saneamendu lanak. Bazterrak zulatu, kaleak zabaldu... eta, tartean, eraikuntzako langileek egin zuten greba jasan behar. Auzokideak gogaituta ibili ziren. Lanok oraindik ez dituzte amaitu, baina dagoeneko ez da langilerik ikusten. Kaleok txukundu eta lanak bukatzeko ordua da gero! /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ASTEKO GAIA /04

Literatura sari banaketa

Gaur arratsaldean banatuko dituzte XVI. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak.

ASTEKO GAIA /05

Kanuto Deuna bihar, zapatua

Bihar, zapatua, ospatuko dute Kanuto Deunaren eguna. Giro polita sortuko dute herrian.

KIROLAK /04

Xake taldeak hasi du liga

Arlutz xake taldeak hasi du denboraldia; lehenengo partida irabazita hasi du, gainera.

ASTEKODATUA

7

GAZTETXO HASI DIRA SPINNING EGITEN

Martitzenean hasi ziren spinning egiten 13 urteko zazpi gatzetxo. Mutil bakarra dago momentuz, baina badute gehiagorendako lekua. Astean behin emango dituzte eskolak, kirol etxean.

BESTEKEESANA

“Txinan neska jaio behar dela jakinez gero abortatu egiten dute askok. Duela bi aste kriminalizatu egin zuten abortua, baina librea eta doan izan da orain arte, eta lanpostu asko sortzen zituen. Hortaz, egun batetik bestera hori ezin da moztu. Hemendik urte batzuetara %80a seme bakarra izango da Txinan. Orain dela 20 urte baino lehenago jaiotakoek hiru edo lau anai-arreba dituzte, baina hemendik 30 edo 40 urtera seme bakarrak izango dira gehienak. %80 seme bakarrak izatea eragin handia izan dezake duda barik gizarte batean. Neska jaio behar dela jakinez gero abortatzeko aukera ematen zieten, gainera, mutilak izango dira gehienak. Horrek ere arazo handiak sortaraziko dizkiete.

OIER ETXEBARRIA
Arrasate Irratia/05-01-19

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Liburu orlegia

Eta gero demokratikoak direla esango dute norbaitzuk. Liburu orlegia, aurkeztua, eztabaidatua (nahi zuten guztiek izan dute aukera) eta azkenean gehiengoz legebiltzarrean onartua izan da.

Orain Espainiara eraman eta plana ilegitimoa dela eta erreferenduma ilegala. Horrek zer esan nahi du, EAEko biztanleri gehiengoak ilegitimoa eta ilegala garela? Alde batetik Herri (zati bat behintzat) baten legebiltzarrak gehiengoaz onartutakoa da ilegitimoa (legez kontrakoa), eta bestalde, Herri bateko Herritarrei nola antolatu nahi duten galdetzea ilegala omen da. Baina nola izango da ilegala herritar bati bere Herria nola antolatu nahi duen galdetzea?

Ba al dago akaso, hain erabilia den demokrazia hitz hori hobeto islatu dezakeen kontzepturik?

Sinestezinak iruditzen zaizkit, eta baita lotsagarriak

ere Espainian plana baztertua eta gainera tramitatu ere egingo ez zela adierazten zuten politikari batzuen adierazpen prepotenteak. Zer pentsatzen dugun, zer nahi dugun, ze erabakitzen dugun bost axola badie erreza da, utz gaitzabela denon artean eta gehiengoak hemen erabakitakoa hemen egiten.

Hala ere, ematen du Espainian azkenean tramitatu egingo dela baina esan duten arabera, lehenbailehen, EAEn egingo diren hauteskundeetatik oso gertu egon ez dadin, badakizue, Espainian p. kasurik ere egiten ez digutela hain argi ikusteak, botoak ken diezazkioke norbaiti.

Beno, errespetu falta izugarri honen ostean eta zerbait positiboa esateagatik, gogoratu nahi nuke liburua behintzat orlegi kolorekoa dela, badakizue, itxaropenaren kolorekoa. Eta ez dezagun ahaztu, daltoniko asko egon arren itxaropena azken galtzen dena dela.

“Herritarrei nola antolatu nahi duten galdetzea ilegala omen da. Nola izango da ilegala galdetzea?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Aktore asko gurien

Gero eta aktore gehixau daukou herrixen. Oin arte Dabid Errasti bakarrik zala uste neuen, baiñe fan zan astien Salvan lengo lantxuen berri emun euskuen ARETXAGAZETA, eta ostien beste aretxabaletar bat ikusi dot telebisiñuen. **Iñigo Jauregi** da bera, Jauregi okindegikue, eta ingurumenen gaineko iragarki bat egitten dau. Telebisiñue erakargarrix dala esaten daue eta siñiskeitan hasitte nau.

Oier Etxebarria, ostera, Txinatik jaku bisittan. Aste bi besterik ez da egongo gure artien, hortaz, ez dau asti haundirik eukiko familixiekin egon, lagunekin parrandan egin eta Paloma neska laguneri inguruko parajiek erakusteko.

Gure herrixen ez dala ezer egoten, baiñe datorren astien hitzaldi bi eta ikastaro bat egongo die. Hika berbetan ikesi gure dauenak Loramendi Euskara Elkartera fan besteik ez dauko izena emuteko. Joseba Urkia izengo da irakaslie eta duda barik edarto erakutsiko dau. Eguenien, barrez, hitzaldi bi. Batzuetan bapez eta hurrenguen dana batera. Datorren astera etxoin barik, ostera, bixer Kanuto Deuna ospatuko daue herrixen. Giro politte sortuko dauen dudarik ez dauket.

M. J. Aretxaga

LITERATURA LEHIAKETA/ Lehen Hezkuntzako eta DBHko herriko ikasleek hartu dute parte

Gaur egingo dute Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa

MIRARI ALTUBE

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpitan banatuko dituzte XVI. Loramendi Literatura Lehiaketako sariak. 209 lan aurkeztu dituzte, eta piropoak, komikia, ipuina, poesia eta grabaketa landu dituzte Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek. Orain saria jasotzeko ordua heldu zaie.

Gaur arratsaldean jasoko dute saria Loramendi literatura lehiaketako txapeldunek. Hain zuzen ere, Nuria Agirre Loramendi Euskara Elkarteko presidentea, Arritxu Oliden alkatea eta Xabier Sarasua Kultura zinegotzia izango dira 19:00etan hasiko den ekitaldian.

209 LANEN ARTEAN ONENAK

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek hartu dute parte literatura lehiaketan; 6 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek, hain zuzen. Gehienak aretxabaletarrak izan dira, baina herriko ikastetxeetan ikasten dabilzan inguruko herrietakoak ere badaude.

Iaz 300 lanetik gora aurkeztu bazituzten ere, aurten gutxiago izan dira: 209 lan, hain zuzen ere. Urtero moduan, komikiak, piropoak, poesiak, ipuinak eta grabaketak landu dituzte. Lan handia izan dute epaimahaikoek, eta mailari dagokionez denetik egon



Loramendiko presidentek, Xabier Sarasuak eta alkateak emango dituzte sariak.

da, beti bezala. Grabaketen kasuan, esaterako, hiru lan baino ez dituzte aurkeztu, baina bi oso txukunak eta dotore eginda-koak izan dira.

Gaur arratsaldean jasoko dituzten sarietako esker aurrerantzean ere literaturaren inguruan lanean jarraitzeko indarra jasoko dute herriko gaztetxoek.

LABUR

Botoa emateko eskubidea dutenen datuak ikusgai daude

Datorren otsailaren 20an Europako Konstituzioaren gaineko galdeketa egingo dute. Egun horretan botoa eman dezaketenen datuak ikusgai egongo dira udalategian, gaur hasi eta hurrengo egubakoitza bitartean. Oraingoan, ostera, norberak ikusteko zerrendarik ez da egongo, idazkariarengana joan beharko du interesatuak eta hark ordenagailuko zerrendan begiratuko du. Herritar guztiek dute begiratzera joateko eskubidea.

Arritxu Oliden alkatea martitzenean Goitbn

Datorren martitzenean, urtarrilak 25, Arritxu Oliden alkatea izango da Goitbko Debarri saioan. Alberto Gorritibereak aurkeztutako saioan gainbegiratu egingo diote herriko azken gertaera eta kontuei: tranbiaren proiektua, autobidea, onartzeko dagoen udal aurrekontua... Herritarrek ere izango dute alkateari galderak egin eta kezak agertzeko aukera. 21:00etatik 22:00etara bitartean da saioa.



Dagoeneko jarri dute autobus geltokiko markesina


Euripean egon behar izan dute orain arte Azbe lantegi parean autobusari itxaroten ziotenek. Joan zen astea ezkerro, ostera, markesina daukate. Ez da handia, baina aterpean egoteko bestekoa bai. Autobus ordutegia ere bertan dago jarrita. Geltokira pasatzeko zebrabidea egitea falta da orain; hori ere iritsiko da, eta gorria izango da, gainera. /M.A.

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta




ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABAleta

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



JAIA/ Hitzaldi bi egin dituzte astean, kalamuaren eta drogen gainean berri emateko

Kanuto Deunaren eguna ospatuko dute bihar, zapatua

M.A.

Bosgarren aldiz ospatuko dute Kanuto Deunaren eguna bihar. Marihuanaren zaindari izendatu zuten Kanuto 2000. urtean, eta, hala, urtarril inguruan ospatzen dute eguna. Herri bazkarian sortuko den giro ona eta musika izango dira nagusi biharko ospakizunean.

Herriko hainbat gazte hasi ziren antolatzen Kanuto Deuna orain bost urte. Norberak marihuana kontsumitu eta hazteko duen eskubidea aldarrikatu gura dute.

BAZKARIA ETA MUSIKA

Egun zehatzik ez izan arren urtarrean hasi ziren ospatzen Kanuto Deunaren eguna, eta iaz izan ezik, horrela egin dute gainerakoetan. Astean drogen gaineko hitzaldi bi egin dituzte, eta bihar, zapatua, ospakizun nagusia izango dute. Egitarauari dagokionez, iazkoaren oso antzekoa da.

Egunari hasiera emateko bolo txapelketa egingo dute bolatokiari, 12:00etan. Herri bazkaria egongo da gero, eta bazkalostea Juan Luis Lekunberri musikari aretxabaletarrak girotuko du.



Gaita eta danbor hotsek girotu zuten iaz Kanuto Deunaren eguna.

Jokoak eta dantza afrikarren erakustaldia ere egongo dira. Arratsalde partean, kalejira egingo dute Elektrotuna taldearekin eta ilunkarako hotzari aurre egiteko

salda beroa eskainiko dute 20:30ean. Eguna bukatzeko Karlote y Los 3 Del Patibulo eta Akulu taldeen kontzertua egongo da Mitarte kaleko lokalean.

Lana bilatzeko eta euskara ikasteko zerbitzuak KZGunean

M.A.

Urte berria eskaintza berriei hasi dute KZGunean. Hala, ohiko zerbitzuez gain, Lan Eskaintza Publikoan izena emateko aukera dago, baita BOGA metodoa erabilita euskara ikasteko ere. Aitor Madrid da, gainera, bertako arduradun berria.

Interneten ibiltzeko aukera eskaintzen du KZGuneak, eta ez dakienarendako ikastaroak antolatzen ditu. Orain, ostera, eskain-

tza gehiago dituzte: lanpostu publikoetan izena emateko erraztasunak eta euskara on-line ikasteko aukera.

IKASTARO GEHIAGO

Lan Eskaintza Publikoan, LEpn, izena emateko aukera dago orain KZGunean. Hala, lanpostu publikoetako oinarriko ikasgai zerrendak ikusi, argibideak eskatu, ordainketak zela egin eta beste hainbat datu topatzeko aukera eskaintzen du. Horrez gainera, BOGA metodoa erabilita euska-

ra ikas daiteke euskaltegiko ikasleek. Hain zuzen ere, ezkutuko zenbakia erabilita on-line ikastaroetara sar daiteke eta nork bere erritmora ikasi.

BETIKO IKASTAROAK

Interneten gaineko ohiko ikastaroak ere ematen dituzte KZGunean. Hilaren 10ean hasi zituzten batzuk, eta oraindik izena eman dezakete interesatuek. Hilaren 25ean, ostera, finantzen gainekoa hasiko dute; hortaz, interesatuok lehenbailehen deitu: 943 79 94 44.

LABUR


Aizkorriko parke naturalaren gainean egingo du berba Bioaniztasuneko zuzendariak

Aizkorri eta Aratz aldeko natur baliabideak antolatzeko planaren gainean berba egitera etorriko da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Bioaniztasuneko zuzendari Josu Erkiaga. Udaleko Ingurumen Sailak antolatu du hitzaldia, eta eguenean, urtarrilak 27, 19:00etan izango da udaletxeko ganbaran. Oraintsu onartu dute Aizkorriko parke naturalaren gaineko plana, eta horren berri ematera eta herritarrei sortutako galderak erantzutera etorriko da Josu Erkiaga. Gure inguruaz kezkatuta dauden guztiek dute parte hartzeko gonbita.

Udaltzain postua betetzeko jarritako baldintzak egunotan agertuko dira BOEn

Jose Nuñez udaltzainak utzitako postua bete gura du Udalak. Horretarako lan deialdia dagoeneko agertu zen GAOn eta egunotan agertuko da BOEn. Behin argitaratuta izena emateko epea zabalduko dute, eta ostean, azterketak egin beharko dituzte. Udaleko idazkariaren esanetan hainbat lagunek deitu dute dagoeneko, lan baldintzen berri izateko. Lanpostua betetakoan lau udaltzain izango ditugu herrian, lehen bezala.

TXUTXU-MUTXUA



Danborrak gogotsu astindu zituzten umeek

Gabonak pasatu ostean datorren hitzordua da San Sebastian eguna. Batzuek goizean eta beste batzuek arratsaldean, herriko hiru ikastetxeetako ume gehienek astindu zituzten danborrak atzo, urtarrilak 20. Oporren ostean hasi zituzten entseguak eta San Sebastian egunerako ondo baino hobeto zekiten bai kantua, bai doinua. Txikienek ere dotore asko jo zuten Sarriegiren martxa Pausoka Haur Eskolan. /M.A.

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Herriko plaza z/g ARETXABALETA



Arlutz xake taldeak Pasaiaiko Batalla izango du aurrez aurre bihar, zapatua, 16:00etan, zinemaren osteko lokalean.

ARTXIBOA

XAKEA

Lehenengo partida irabazita hasi du Arlutz xake taldeak Euskal Liga

Aurten, gainera, Arrasateko San Andres taldearen aurka derbia jokatuko dute

MIRARI ALTUBE

Joan den astean hasi zuen denboraldia Arlutz xake taldeak. Bilboko Peña Rey Ardid talde indartsuari zion, gainera. Martxo arte iraungo duen denboraldi gogorra izango da, baina mailari eustea dute helburu Arlutz taldeko bost jokalariek.

Gogotsu ekin diote denboraldiari Arlutz xake taldeko jokalariek. Martxo arte iraungo du Euskal Ligako denboraldiak, eta aurten San Andres talde arrasatearraren aurka ere jokatuko dute.

EUSKAL LIGA

Andoni eta Fran Miguel, Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Joseba Altube dira Arlutz xake taldeko jokalariek. Iaz ere Euskal Ligan jokatu zuten, eta azken orduan zorte handia izan zutelako ez ziren mailaz jaitsi. Aurten hobe-

to ibili gurako lukete bost jokalariek; hala dio Aitor Alcaidek: "Mailari eustea da gure helburua, baina iaz baino hobeto ibilita. Lehenengo partida irabazi egin dugu, uste izan barik, eta oso pozik gaude".

Euskal Ligan hamar talde ibiliko dira norgehiagokan, euren artean aretxabaletarrak eta Arrasateko San Andres. Talde indartsuak izango dituzte biak ere aurrez aurre; Donostiako Gros, esaterako. Hala ere, jokalariek aldaketak egon dira eta Rey Ardid taldean zeuden bi profe-

"Mailari eustea da gure helburua, baina iaz baino hobeto eta lasaiago ibilita"

sionalek aurten ez dute jokatuko bertan. Hori horrela, aretxabaletarrek irabazi egin zieten bilbotarrei denboraldiko lehenengo partida. Bihar, zapatua, Pasaiaiko Batalla taldearen aurka jokatuko dute Artxabaletan; 16:00etan izango da, zinemaren ostean daukaten lokalean.

UDA KIROL ELKARTE BARRUAN

Aretxabaletako Kirol Elkarteak, UDAk, egindako ezohiko batzarraren xake taldea elkartean sartzea erabaki zuen orain dela hiru aste. Aitor Alcaideren esanetan taldekideek ez dute inolako berririk, eta egunkariaren bitartez jakin dute. Ez dakite zein aldaketa ekarriko dion taldeari erabaki horrek, baina garrantzizkorik ez dute uste izango denik.

Martxo bitartean astero izango du partida Arlutz xake taldeak; hortaz, gogor entrenatu behar dute jokalariek mailari eutsi gura badiote.

PILOTA

Herriko sei pilotarik jokatuko dute aste bukaeran hasiko den udaberriko txapelketa

Aste bukaeran hasiko dute udaberriko pilota txapelketa Gipuzkoako hainbat pilotarik. Aretxabaletako Errasti anaiek gaur jokatuko dute partidua Elgetan, 21:00etan. Uriarte eta Oionek, osterari, bihar, zapatua, jokatuko dute Eibarko bikotearen aurka Iturri-gorri frontoian, 18:00etan. Lasagabaster eta Altolak osatutako bikoteak aste bukaera honetan ez du partidurik izango.

FOTOKIROLA



Gaztetxoek ere spinning egin gura dute

Martitzenean hasi zituzten spinningeko eskolak 13 urteko 7 neskek. Gaztetxoak dira, baina herrian ez dagoela besterik eta spinning egiten hasi dira. Bixen Calzon izango dute irakasle, eta astean behin joango dira kirol etxera bizikleta gainean ibiltzera, martitzenetan, 17:00etan, hain zuzen. Pozik eta gogotsu joan ziren guztiak lehenengo egunean, eta ikasle gehiago ere agertuko zaizkio Bixeni klasean./ M.A.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Trintxerpe-UDA
Preferentea.
Zapatua. Donostia.
UDA-Anaitasuna
Ohorezko infantilak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Arizmendi/UDA-Mondra
Lehenengo mailako gazteak.
Domeka. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Uriarte/Oion-Eibar
Bigarren mailako nagusiak.
Zapatua. 18:00. Iturri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Hondarribia 1
Preferentea.
UDA/Arizmendi 6 Mariño 2
Ohorezko gazteak.
Lengokoak 3 UDA/Arizmendi 1
Lehenengo mailako gazteak.
UPV 0 Arizmendi/UDA 5
Lehenengo mailako kadeteak.
Bergara 3 Arizmendi/UDA 2
Bigarren mailako kadeteak.
UDA 3 Tolosa 0
Ohorezko infantilak.

UDA/Arizmendi 4 Hondarribia 0
Infantil txikiak.
Arizmendi/UDA 1 Mondra 4
Emakumezkoen liga F-11.
Arizmendi/UDA 1 Eibartarrak 9
Emakumezkoen liga F-8.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel: 943 79 88 95



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ERRETRATUZHARRA

Bailarako kintoak Kanpanzarren

Aze kinto bazkaria egin zuten 45eko kintoek Kanpanzarren. Gatzagatik ez zen inor joan, baina Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko mutil gehienak elkartu ziren, ia 50 lagun. 1924an jaiotako eta 1945ean soldadu egondakoak dira, eta Juanito Urretaren esanetan 40. urtebetetzea ospatzeko elkartu ziren: "40 urte betetzen genituela eta, Mondragoeko *Ante*-ri Kanpanzarren ospatu behar genuela akordatu zitzaion. Hala, San Frantzisko elizan izan genuen meza lehenengo eta ondoren Kanpanzarren dagoen tabernara joan ginen bazkaltzera". Kantuan egin zutela du gogoan Juanitok, isildu ere ez ei ziren egin, eta bazkalostean erretratua atera zuten. "Arratsalde partean etxera joan beharrean aretxabaletarrok Durangora eta Urkiolara joan ginenez txikiteoan egiteko. Gaututa iritsi ginen etxera", dio Juanitok.

Ia 50 lagun ageri dira erretratuan eta guztien izenak jakitea ez da lan samurra, arrasatearrak eta eskoriatzarrak ere asko daude-eta. Aretxabaletarrei dagokienez Elias Otero, Sabino Bengoa, Migel San Juan eta Juanito Urreta daude. Arrasatearren artean Alberto Bueno, Alfonso Gorroñoitia, Felix Arriaran eta antolatzaillea izan zen *Ante* Uribarren daude, beste askorekin batera. Lehenengo ilaran makurtuta agertzen da *Ante*, eskuinetik hasita seigarrena da, hain

zuzen. Eskoriatzako artean Esteban Arrieta eta Santi Agirre ageri dira. Ezagutu beste asko ere ezagutu dituzte Juanito Urretak eta Sabino Bengoak, baina gero eta gutxiago akordatzan ei dira izenekin. Lagun asko, gainera, dagoeneko ez daude gure artean.

Juanitoren esanetan urte askoan egin zituzten kinto bazkariak: "Egia da, urte askoan elkartu gara kinto bazkariak egiteko, baina sekula ez

Kanpanzarren beste. Orain dela urtetxo batzuk utzi genion elkartzeari, eta orain ez dugu ezer egiten. Batek hemengo mina duela eta besteak hangoa, gogorik ez, antza denez. Iaz, 80 urte bete genituen eta herrikook elkartzekotan egon ginen urteurren berezia zelako, baina azkenean, orduantxe ere ez".

Eutsi beharreko ohitura da kintoak elkartu eta egun pasa polita egi-

tea. Orain, gainera, emakumeek ere berdin-berdin hartzen dute parte ospakizunetan. 86an jaiotako kintoak, esaterako, Santa Ageda egunerako dantza entseguak egiten dabilta. Horrenbestez, aurten hasi dutenari ia urte askoan eusten dioten.

Argazkia: Sabino Bengoa
Informazioa: Juanito Urreta



DEBARRI

Arritxu Oleden,
Aretxabaletako alkatearekin berbetan

Martitzenean, urtarrilaren 25ean, 21:00etan

Aurkezlea: Alberto Gorritiberea

Alkateari zuzenean galderak egiteko:
943 71 23 93 edo www.goiena.net



Ikustekoa!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a / 195. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

2005eko udal aurrekontua onartu, eta 6.670.000 euro izango du Eskoriatzak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako Udalak astelehenean onartu zuen aurtengo udal aurrekontua. Hainbat lan egiteko erabiliko dute zati bat. Inbertsio handienak hiru izango dira, eta, besteak beste, Santa Ana eta Dorleta auzora eta herriko hainbat lokal egokitzea bideratuko dute.

Urteko lehenengo osoko bilkura egin zuten astelehen arratsaldean Eskoriatzan. Askotariko gaiak landu zituzten bertan. Lehenengo, aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zuten; Ezker Batua eta Elizateak taldeek hainbat alegazio egin zizkieten eta azkenean, aho batez onartu zuen udalbatzak 2005eko aurrekontua. 6.670.000 euro izango ditu aurten Eskoriatzako Udalak.

INBERTSIO HANDIENAK

Eskoriatzan egingo diren inbertsio handienak hiru dira: alde batetik, Santa Ana urbanizazioa egiteko milioi bat euro bideratuko dute; bestetik, Dorleta auzoa birgaituko dute Izartu programak emandako diruari esker, eta hainbat lokal egokitu.



Dokumentuen berretiketatzak lanak amaitu arte mailegu sistema etentzea dakar.

ALEGAZIOAK

Ezker Batua eta Elizateak taldeko zinegotziek aurkeztutako alegazio gehienak hainbat arlotara bideratutako partidak handitzeko

edo beste sail batzuetara bideratuak izan daitezela eskatzeko egin zituzten. Horietariko bat, Tsunamiak Asian kaltetutako herrialdeei laguntzeko aurrekontuko

diru kopuru bat erabiltzea. EA-EAJ alderdiek osatutako koalizioak adierazi zuenez, biztanle bakoitzeko 25 zentimo bidali dituzte. 3.887 biztanle ditu Eskoriatzak.

Santa Ana urbanizazioa egin, Dorleta auzoa birgaitu eta lokalak egokituko dituzte

Ezker Batua eta Elizateak taldeek aurkeztu zizkieten aurrekontuei alegazioak

Tsunamiaren kaltetuei laguntzeko 25 zentimo herritar bakoitzeko bideratu ditu Udalak



1929an jaiotako kintoen bazkaria Apotzagan

Argazkian agertzen diren gizon-emakumeak eskoriatzarrak dira. 2004ko azaroaren 20an elkartu ziren Apotzagan eta bazkaria egin zuten hamabi lagunek.

Kintoak dira eskoriatzar horiek, 1929. urtean jaio ziren eta. 75 urte bete zituztela ospatzeko elkartu ziren Apotzagan aurreko urteko azaroan. Ederto igaro zuten elkarrekin, eta diamantezko ezteiak balira bezala ospatzeko aprobetxatu zuten egun hori. Zorionak, guztioi, eta jarraitu orain arte bezala! /Z.V.M.

LABUR

Ate irekiak Almenen eta bilera Jose Arana gunean

Bihar, urtarrilak 22, ate irekien jardunaldia egingo dute Almenen Lehen Hezkuntzan hasiko diren hainbat neska-mutikok eta euren gurasoek. 16:00etan elkartuko dira. Jokoa, ipuin kontaketa eta *La Mondada Lironda* pailazoaren ikuskinuna antolatu dituzte biharko.

Bestalde, urtarrilaren 27an, Jose Arana gunean bilera informatiboa egingo dute. Matrikulazio kanpainari buruz arituko dira. 18:00etan hasiko da bilera, eta gutxi gorabehera ordu bete iraungo du.

ESKUALDEKO ELKARTEA EGIN GURA DUTE TAXI GIDARIEK

Taxi zerbitzuaren tarifa berriak onartu eta hitzarmen bat sinatu dute

Z.V.M.

Herriko taxi zerbitzua hobetuko duen ekimena jarri gura dute abian eskualdeko taxi gidariek. Horretarako, herri bakoitzean taxien presentzia segurtatzea izango da euren lehen egitekoa. Hala ere, ezinezkoa balitz, 24 orduko telefono zerbitzua eskaintzeko asmoa dute.

Eskualdeko taxi elkarteak egiteko proposamenak zerbitzua hobetzeko xedea du

Eskoriatzan oso gutxitan aurki daiteke taxia dagokion geltokian; hau da, Santa Ana inguruan. Gehienetan, beste herri batzuetara jo behar izaten dute herritarrek gura duten tokira eraman ditzaten. Hori ekiditeko asmoz, eskualdeko taxien elkarteak sortu gura dute taxi gidariek. Haiek hainbat proposamen egin eta Eskoriatzako Udalak onartu egin ditu.

Ibarreko taxi gidariek bildu eta Debagoieneko herrietan etengabeko zerbitzua eman gura dute. Dagoeneko hasi dira lehen urratsak egiten. Eskoriatzako taxi gidaria, beste herri batzuetako gidariek batera, Arrasatera joaten da. Hala, bertan egonda une-

oro dute eskura ibarreko herritarrek eramango dituen norbait.

TELEFONO ZERBITZUA

Hala ere, etorkizunerako proposatzen duten egitasmoa - taxiak herrietan egotea - ezin bada toki guztietan bete, telefono bidezko zerbitzua eskaini gura diete herritarrei. Oraindik, baina, ez dakite zehatz-mehatz noiz hasiko diren.

Bestalde, taxien elkarteak eskatu du udalek lizentziarik eman ez ditzala. Horri ere baiezkoa eman dio Eskoriatzako Udalak, betiere herritarrei eskaini beharreko zerbitzua behar bezala ematen bada.



Arrasaten, esaterako, taxiak egunez eta gauez egon daitezzen saiatzen dira.

Ekainerako aldatu gura dute museoa Ibarraundira

Z.V.M.

Ibarraundi jauregira aldatuko dute orain Hidalgo kalean dagoen Museo Eskola. Baina dagoeneko hainbat bisita hitzartuta daukaten, ez dira momentuz tokiz aldatuko. Hala ere, ekainerako leku berrian egotea espero dute museoko arduradunek.

Dagoeneko amaitu dituzte Ibarraundi jauregiko lanak, eta aurtengo museoaren lekualdatuko dute bertara. Hala ere, udaberrira arte ez dira tokialdatzea egiten hasiko. Horren arrazoien berri ere eman

dute arduradunek. Dagoeneko finkatuta dituzte Museo Eskolara eskoletatik egingo dituzten bisitak; horien ostean joango dira Ibarraundi jauregira.

Inaugurazio egunari buruzko azalpenak ere eman dituzte. Ekain inguruan izango dela eman dute aditzera, San Pedro inguruan, hain zuzen ere. Baina adierazi dute dagoeneko erabil daitezkeela egoitza berriko zenbait gela. Adibidez, beheko solairuan kokatu duten hitzaldi aretoa.

Bestalde, nahiz eta museoa herriko historia ezagutzeko lekua izan, informazio-gune izatea ere gura dute arduradunek.



Erabilgarri dago dagoeneko lehen solairuko hitzaldi aretoa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

| | |
|---------------------------|--------------|
| Udaletxea | 943 71 44 07 |
| Udal bulegoak | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea | 943 71 46 88 |
| Gizarte laguntzailea | 943 71 31 36 |
| Kirol etxea | 943 71 53 28 |
| Liburutegia | 943 71 31 35 |
| Luis Eceiza | 943 71 53 56 |
| Jose Arana Almen Ikastola | 943 71 44 86 |
| Almen | 943 71 49 07 |
| Museo Eskola | 943 71 54 53 |
| Axtroki | 943 71 54 34 |
| HUHEZI | 943 71 41 57 |
| Osakidetza | 943 71 44 52 |
| Telesko | 943 71 49 17 |
| Taxiak | 943 71 40 59 |

BESTELAKOAK

| | |
|-------------------------------|--------------|
| Eskualde ospitalea (Arrasate) | 943 00 53 00 |
| Gurutze Gorria (Bergara) | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oriati) | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz) | 945 23 20 30 |
| PESA (Arrasate) | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate) | 943 77 10 43 |
| SOS Delak | 112 |

OHARRAK

HITZALDIA

Enriqueta Caballerok urtarrilaren 26an *Astrologia eta norberaren ezagutza* hitzaldia eskainiko du 18:30ean. Amuska antolatuko du ekimena eta kultura etxean izango da.

ARETO FUTBOLA

Euskal ligako partidua zapatuan. Eskoriatza KE eta Elorrio Buskantzaz FKE 18:00etan kiroldegian.

PLASTIKO BILKETA

Elizateetako plastikoa batuko dute martitzenean, urtarrilak 25. Zarimuzko bidegurutzean arratsaldean utzi beharko da jasotzeko materiala.

AXTOKIRENAGENDA

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Asteleheneko Goienkarira harpidetu gura duten Axtrokiko bazkideek 29,5 euro ordaindu beharko dituzte. Baita dagoeneko harpideturik daudenek ere. Gainerako herritarrek, berriz, 35 euro.

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

ELIKAGAI BILKETA GATZAGAN

Saharari laguntzeko jaki bilketa egin dute, eta bikain erantzun dute gatzagarrek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Saharako errefuxiatuei bidaltzeko elikagai bilketa egiten dihardute Debagoiengan. Gatzagan orain astebete itxi zuten kanpaina. *Sorginak* izan ziren hori kudeatzen, eta gatzagarren erantzunarekin oso pozik daudela eman dute aditzera.

Leintz Gatzagako herritarrek Saharari laguntzeko kanpainan parte hartu berri dute. NUBI elkarteak antolatutako ekimenean, azukrea, konpresak eta atun latak biltzen aritu dira.

'SORGINAK' ARDURADUN

Orain hiru aste hasi zen kanpainarako produktuak batzeko ardura herriko emakume taldearen esku geratu da: "Lehenengo aldiz esku hartu dugu horrelako ekimen batean, eta oso pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin", eman du aditzera Amaia Olabe Sorginak taldeko kideak.

"Erantzun bikaina izan duela diogu, azukreaki dagokionez, 90 kilo batu ditugulako gutxi gorabehera. Gainera, atun latak ehun baino gehiago izan dira, eta konpresak zenbat izan diren esaten ez nuke jakingo, baina pila bat jaso ditugula ezin ukatu", azaldu du.

Leintz Gatzagan jasotako guztia hartu eta Arrasatera eraman zuten. Bertatik kudeatuko dute Nubi elkarte lagunek dena Saharara irits dadin. Kamioi karabanan bidaliko dute, eta otsaila amaierarako guztia iristea espero dutela eman dute aditzera elkarte kideek.

NUBI ELKARTEAREN EKIMENA

Nubi Arrasateko Sahararren Lagunen Elkartea da eta hainbat ekimen egin ditu herri hartako errefuxiatuen alde. Azkena abenduan abiatu zuen elkarre solidarioak; sahararrentzat elikagaiak



Lotura estua dute hainbat gatzagarrek Saharako biztanleekin. Irudian, 2002. urtean bertara egindako bidaia.

batzeko kanpaina da. Hainbat herritan egin dute kanpaina, eta orain dela hiru aste Leintz Gatzagara iritsi zen. Nahiz eta EAE osorako egitasmoa izan, ibarrean atun latak, konpresak eta azukreak bildu dituzte soilik.

Otsailera arte kanpaina irekita dagoela eman dute aditzera Nubi taldeko kideek. Datorren hilean, kamioi karabana irtengo da Aljeriarantz. Bertan eramanango dituzte EAEn bildutako askotariko produktuak.

BESTE EKIMENAK

Baina ez da elkartearen ekimen bakarra. Izan ere, duela hainbat urtetik hona, Saharako haurrak ekartzen ditu uztailean eta abuztuan, oporrak inguruko herrietan igaro ditzaten. Euren herrietan

aurki ez ditzaketen gauza mordoak topatzen dute bertan, eta lagun ugari egiten dituzte. Ez hori bakarrik euren osasunak ere aldaketa nabarmena izaten du. Giro berriak ezagututa itzultzen dira euren sorlekura ondoren.

Ekimenean lehenengo aldiz hartu dute parte 'sorginek', eta oso gustura daude

90 kilo azukre, ehun latak atun baino gehiago eta konpresa mordoak jaso dituzte Leintz Gatzagan

Leintz Gatzagan bi astez egon da ekimena martxan; 'sorginak' arduratu dira hori kudeatzeaz

Otsailean Aljeria aldera irtengo dira kamioiak, EAEn jaso dituzten produktuak eramatera

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



bedardenda


Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri?

GORPUTZ BAT.

*Gorputz bat eta bakarra bizitza baterako.
Nola zaindu hala gozatu!*




Zainduz

ILARGI PLAZA, 6 BEHEA
TEL.: 943 71 27 92
20550 ARETXABALETAKO (GIPUZKOA)

e-mail: zainduz@euskalnet.net

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industriala

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

ED Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak



Jon Ape Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Petrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilidea, 17 eta 25
• Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
• E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatzeko sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187